

BADALAB

HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, 2025eko urriaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia hartu du:

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Gobernu Batzordeak 2025eko irailaren 24ko bileran erabaki zuen langile baten ordezkapen kontratazioa abian jartzea. Halaber, hautaketa-prozesua arintzeko xedearekin, saio horretan bertan eskumena eman zitzaion Batzorde Betearazleari prozesua bideratzeko eta ebazteko.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikuluan eta Partzuergoaren Estatutuen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatu lanpostua betetzeko hautaketa-prozesuari Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 2025eko urriaren 8an argitaratutako lan eskaintzaren bidez eman zitzaion hasiera.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 22an amaitu zen. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak lan-eskaintzan izena eman duten eta ezarritako ezinbesteko baldintzak betetzen dituzten hautagaien curriculum vitae-ak helarazi dizkio Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren zuzendariari, prozedurari jarraipena emateko.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, presidenteak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak eta jarraibideak, erabaki honen lehenengo eranskin gisa doazenak.

Bigarrena.- Onartzea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak helarazitako hautagaien zerrenda, eta erabaki honen bigarren eranskin gisa atxikitzea.

Hirugarren.- Erabaki hau Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren web orrian argitaratzea eta, aldi berean, onartutako hautagai guztiei ere bide elektronikoen bitartez jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkezteko Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Gobernu Batzordeari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekursorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekursorik aurkezteko daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Erreteria, 2025eko urriaren 30a. – Iker Nosedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko idazkaria.

I. eranskina

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoan ordezkapen kontratu baten bidez lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuaren oinarri eta jarraibideak

Lehen a. Xedea

Hautaketa prozesu honen xedea da Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoan borondatezko eszedentzia baten ondorioz hutsik dagoen lanpostu bat betetzea, ordezkapen kontratu baten bidez.

Bigarren a. Hautapen-prozesuaren publizitatea

Hautapen-prozesuan hartzen diren erabakiak eta gainontzeko egintza administratiboak Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren webgunean argitaratuko dira. Aldi berean, komunikazio horiek hautagai bakoitzak helarazitako helbide elektronikoetara ere bidaliko dira.

Hirugarren a. Epaimahai Kalifikatzailea

Hautaketa-prozesuko Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena honakoa izango da:

Epaimahaiburua:

- Joxean Amundarain Iturrioz, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko lehendakaria

Mahaikideak:

- Idurre Eskisabel Larrañaga, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko lehendakariordea
- Goiatz Oiartzabal Lakarra, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko zuzendaria
- Leire Lison Nicuesa, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko berrikuntza eragilea

Idazkaria:

- Iker Nocedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko idazkaria

Epaimahaiak erabaki dezake, bere jardunerako, aholkulari espezialisten laguntza eskatzea, hautapen prozesuko proba batzuetarako edo guztietarako. Aholkulari espezialistek hitza bai, baina ez dute botorik izango, eta haien lana mugatuko da Epaimahaiari laguntzera, beren espezialitate teknikoetan.

Laugarren a. Hautaketa-prozesuaren faseak

Hautapen-prozedurak hiru fase izango ditu:

1. fasea: azterketa teoriko-praktikoa (40 puntu)

Epaimahaiak lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten bi kasu teoriko-praktiko proposatuko ditu. Kasu bakoitza 20 punturen gainean puntuatuko da.

Erreferentzia gisa jarraian zerrendatzen den bibliografia lagungarri izan daiteke:

- <https://www.uema.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20250710-UEMA-Siadeco-Euskara2036.aspx>

- <https://www.argia.eus/gakoak/2025/ikusi-behar-dugu-zenbateraino-komeni-zaigun-sententzia-judizialen-akzio-erreakzio-jokoan-sartzea>
- <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2818/inaki-iurrebaso>
- https://www.berria.eus/euskal-herria/batuz-aldatu-hemen-da-hizkuntza-politikan-jauzia-egiteko-itun-soziopolitiko-berriaren-proposamena_2147107_102.html
- https://irratia.naiz.eus/eu/info_irratia/20231204/euskarak-jauzi-bat-eman-dezan-gizartearen-eraldaketa-behar-da?jw_start=

2. fasea: azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarriketa pertsonala (40 puntu)

Hautagaiek azterketa teoriko-praktikoan idatzitakoa aurkeztu eta defendatu beharko dute Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean. Azken horrek galdera gehigarriak egin ahal izango ditu. Azkeneko tarte elkarriketa pertsonala egiteko baliatuko da.

Eduki akademikoaz gain, Epaimahai Kalifikatzailearen galderei erantzuteko gaitasuna eta malgutasuna baloratuko da eta, era berean, hizkuntza-kalitatea eta -trebetasuna baloratuko dira, bai eta gaien azalpena ere.

Edonola ere, prozesuan jarraitzeko eta azkeneko fasera heltzeko –merezimenduen balorazioa-ezinezbestekoa izango da aurreko bi faseetan, gutxienez, 40 puntu lortzea.

3. fasea: merezimenduen balorazioa (20 puntu)

Zuzenean bitartekaritzarekin, gizarte eraldaketarekin, taldeen dinamizazioarekin eta Diseinu, Pentsamendu, Analisi eta Sormen metodologiaren disziplinekin lotutako edozein gradu edo master: 5 puntu, 10 puntuko mugarekin.

Esperientzia bitartekaritzarekin, gizarte eraldaketarekin edota taldeen dinamizazioarekin zerikusia duen lanpostu batean, arlo pribatuan edo publikoan: 0,416 puntu hileko (lanaldi osoa); gehienez 10 puntu.

Bosgarrena. *Azterketa egunak eta lekua izangaiei jakinaraztea*

1. fasea: azterketa teoriko-praktikoa

Data: 2025eko azaroaren 12a

Ordua: 15:00 (iraupena 2 ordu)

Tokia: Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren egoitza (Madalen kalea 27, Erreterria, Gipuzkoa)

2. fasea: azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarriketa pertsonala

Azterketa teoriko-praktikoaren egunean jakinaraziko zaio hautagai bakoitzari fase honen data eta ordua.

Tokia: Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren egoitza

Hautagaiei azterketak hasi baino 10 minutu lehenago bertaratzeko eskatuko zaie, eta NAN aurkeztu beharko dute. Azterketak egiteko orriak eta boligrafoak Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoak jarriko ditu izangaien esku.

Merezimenduen balioespenari dagokionez, lehenengo bi faseetan laugarren atalean adierazitako gutxieneko puntuazioa lortzen duten hautagaiek bitarte elektronikoak erabiliz bidali beharko dizkiote Epaimahai Kalifikatzailearen idazkariari merezimendu gisa baloratuko diren titulu akademiko zein eskarmentu profesionalaren agiriak. Epaimahai Kalifikatzaileak lehenengo bi faseen puntuazioak argitaratu ondoren egin beharko dute hautagaiek izapide hori.

Seigarrena. Prozesuan zehar aurkeztu beharreko dokumentazioa

Hautapen-prozesuan onartuak izan diren hautagaiek nahikoa izango dute prozesuan parte hartzeko eskaeran bere erantzukizunpean adieraztea betetzen dituztela lan eskaintzan azaldutako ezinbesteko baldintza guztiak.

Hala ere, hautapen-prozesuaren hiru faseetan puntuazio altuena lortu duen hautagaiek egiaztatu beharko ditu lan eskaintzan ezinbesteko baldintzen atalean jasotzen diren ikasketa eta hizkuntza eskakizunak. Era berean, hurrengo atalean azaltzen den lan poltsa beteko duten izangaiek ere egiaztatu beharko dituzte aipatu baldintzak.

Horretarako, hautagaiek prozesuan parte hartzeko eskatu diren titulazio eta agirien kopia entregatu beharko dizkiote Epaimahai Kalifikatzailearen idazkariari, bitarteko elektronikoak erabiliz, Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa prozesuaren emaitza Batzorde Betearazleari proposatu aurretik.

Zazpigarrena. Lan poltsa

Hautaketa prozesu honen ondorioz lan poltsa sortuko da. Bost pertsonen osatuko dute lan poltsa, eta zerrendaren lehentasun-hurrenkera hautagai bakoitzak hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da.

Zortzigarrena. Datu pertsonalen babesa

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Datu pertsonalak hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoak babestekoak, 6.1 artikularen a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Tratamenduaren arduraduna Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoa izango da.

II. eranskina

Hautagai onartuen zerrenda

Abizenak	Izena
Achucarro Goñi	Amaia
Agirrezabala Iradi	Enara
Albizu Rivas	Iban
Alcorta Beti	Garazi
Altolagirre Askasibar	Jon
Altuna Aranzasti	Ane Miren
Antxia Loidi	Eloi
Aranburu Balerdi	Oihana
Arretxea Bereziartua	Oihane
Arrizabalaga Azpiroz	Tasio
De la Linde Garcia	Xabier
De Simon Irigoyen	Martina
Franco Garmendia	Igone
Gaiton Gonzalez de Txabarri	Beñat
Garcia Arbelaiz	Miren Nekane
Garcia Blazquez	Verónica
Iruretagoiena Arroyo	Urki
Leturia Nabaroa	Maite
Mancisidor Arruti	Karmele
Morales Bartolome	Jose
Najera Etxeandia	Naiara
Ocariz Orozco	Elizabeth Glady
Olabide Loiola	Jose Maria
Olalde Ibarrola	Lide
Olariaga Sagarzazu	Karmele
Olasagasti Cases	Miren
Oreja Michelena	Goretti
Ormazabal Galarza	Jon
Rodriguez Escalante	Miren
Rodriguez Zubiaurre	Leire
Ruedas Quintanilla	Raul
Sanchez Velado	Marcos
Zubimendi Lekunberri	Aimar
Zulaica Olano	Eneko